

SUTONDO

GARREKO IPUNEK

Sutondo gareiko ipuñek

Aitona: *Joanes audi emen zan gizon bat sorginengatik esaten zena: "gezurrek diela ta ez diela" Tabernan esaten emen zen.*

"Ez aiela ba fidetu" bakarren batek esan emen zon.

Gio fan emen zan iñurrie, esaten diaun lekuborta (Lizarraga fateko bidien "bizkaingo bixkerra" pasata ezkerreta don iñurri deituriko dermiyuен) ta illuntze aurren batien sorginek atia ta esan zobien:

*"A Joanes audi fanfarrona
ez geala ta ba geala
emen zatan sokati artuta
arrastakan zubipera"*

Ta Joanes audi Fanfarrona sorgin koadri yek artu ta zatan sokati arrastakan zubipia sartu emen zebien eta atzamarkatu an ein emen zebien. Olakuatién Ai Jesus esan zen ta sorgin guztiyek ies ein zebien

Iloba: *Esaten da, ez? Jainkoban izena esatien...*

Aitona: *Bestiatien Akelarrien juntatu zien, akelarre da sorginek juntatzen zien lekube, ez dakit non. Denak mendiyen yoten zien, geienak esaten debienes.*

- Amona: Jentillekin mendiyen.
- Ait: Ez, sorginek, sorginek.
- Amo: Beye berdine da, sorginek jentillek.
- Ait: Beye oik Erriyen ebei yoten emen zien e!
- Amo: Beye orduben erriyen ze etxie yoten zien.
- Ilob: Izeten emen zien normelak.
- Amo: Ez, len jendie kobetan bizitzen zien.
- Ait: Lenoko jendiendako mormalak zien.
- Ilob: Kaletik ikusita normalak beye gero...
- Amo: Ez, kobetan bizitzen zien beren zerak eitten.
- Ait: Bei, beye ori Akelarretan.

Ait: Akelarra, emen ebei akelarren junte ein emen zebien.
Junte ein ta sobre tratatu ein emen zebien, mundu guztia aurria fan ber ziela.

Ta kuadrillatek esan zen: Leño guztien azpiti ta sasi guztien geñeti ta atia zien mundu guztiyan aurria ta atziabeis urrengo goizako o urrengo gabiako etorri emen zien. Ta gio atia emen zien bestiek ta esan emen zebien: leñu guztien azpiti ta sasi guztien azpitti; ta bueno, leño guztien azpitti bei ongi beye

- Amo: Oy kontubok...
- Ait: Beye kontubek die, kontubek, egiye. Gu aittunek esaten zittuben ta gu aittek ebei.
- Ait: Ta sasi guztiyen azpitti atzamarkatuta atia emen zien, mundu guztiko sasi guztiyen azpitti.